

Donostia, 2023ko irailaren 22a

UDALBATZAREN IDAZKARI NAGUSIARI

KONTROL MOZIOA, AMIANTOAREN MAPAREN ETA AMIANTOA KENTZEKO EGUTEGIARI BURUZKOA

Arantza González García Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua babesean, KONTROL MOZIO hau aurkezten du Ekonomia, Tokiko Enplegu eta Ekologiako zinegotzi ordezkari Garmendia andereari hilabete honetan Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean amiantoaren mapari eta amiantoa kentzeko egutegiari buruzko INTERPELAZIOA aurkeztu ondoren.

JUSTIFIKAZIOA

Hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, ekonomia zirkularra bultzatzekoak, hamalaugarren xedapen gehigarrian, amiantoa duten instalazio eta kokalekuei buruzkoan, hondakin horiek behar bezala identifikatzen eta kudeatzen direla bermatzea du helburu.

Honela dio aipatutako xedapen gehigarriak: Lege hau indarrean sartu eta urtebeteko epean, udalek amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda egingo dute, bai eta hura kentzeko planifikazioa biltzen duen egutegi bat ere. Errolda eta egutegia publikoak izango dira, eta autonomia-erkidegoetako osasun, ingurumen eta lan arloko agintari eskudunei igorriko zaizkie. Hauek ikuspen-lanak egin beharko dituzte, amiantoa kendu dela eta kudeatzaile baimendu bati bidali zaiola egiaztatzeko. Kentzeko orduan, lehentasunak ezarriko dira instalazio eta kokalekuen artean, honako hauek kontuan hartuta: arriskugarritasun-maila eta amiantoaren eragina jasaten ari den biztanleriaren ahultasun-maila. Nolanahi ere, arriskurik handiena duten instalazio edo kokaleku publikoak 2028a baino lehen kudeatuta egon beharko dute.

Batzordean, Garmendia andreak adierazi zuen Udaleko hainbat zuzendaritzekin lanean ari zirela lehentasunak eta dagokion tratamendu-egutegia ezartzeko, baina ez zuen horretarako eperik zehaztu.

Amiantoak osasunean izan dezakeen eragina kontuan hartuta, uste dugu udal-gobernuak kronograma bat aurkeztu behar duela ahalik eta lasterren, material hori udal-instalazioetatik eta kokalekueetatik kentzeko. Gainera, kontuan izan behar da Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak 2028rako ezartzen duela horiek kentzeko azken eguna, eta horretarako prozedurak luzeak direla.

Hori dela eta, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio udal-instalazio eta -kokaleku guztietan amiantoa tratatzeko lehentasunen eta jardueren kronograma aurkez dezala 2023ko amaiera baino lehen, eta behar bezala planifika dezala hura 2028rako kentzea, hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko 2022ko apirilaren 8ko 7/2022 Legeak, ekonomia zirkularra bultzatzekoak xedatzen duen moduan.
2. Donostiako Udalbatzak Udal Gobernuari eskatzen dio argitara eman ditzala amiantoa duten instalazioen eta kokalekuen errolda eta horiek tratatzeko egutegia.

Arantza González García,

Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzia.